

/ Nabarmenezkoak

- > Deialdi berria Getxo Itxas Hub-en lan-espazioak eskatzeko (2. or.)
- > "L'elisir d'amore", umorezko eta samurtasunezko opera (3. or.)
- > Udala aurrera doa inausketa kanpainan, eta bereziki Máximo Aguirre eta Zugatzarteko ezketan dihardu (4. or.)



* Korrika
heltzear
(3. or.)

Kontzertua. Hilak 28, larunbata, 20:00etan, Muxikebarrin, "Vamos, que nos vamos", Golden Apple Quartet taldearen agur kontzertua. 8 euro.

A-
GENDA

Eliz-kontzertuak. Hilak 27, ostirala, eta hilak 28, larunbata, Biotz Alai, Ondarreta eta Ars Canticum abesbatzen emanaldiak Musicum Ensemble Orkestrarekin.

Udala erroldatuta ez dauden 2.600 etxebizitzetako jabeekin jarriko da harremanetan, hutsik dauden etxebizitzak mobilizatzeko

Udala hasi da erroldatuta ez dauden udalerriko 2.600 etxebizitza ingururen jabeen gutunak bidaltzen. Komunikazio honen helburua da hutsik dauden etxebizitzak errolda egin aurretik, Udalak egun duen informazioa kontrastatzea eta eguneratzea. Udalak ahalik eta etxebizitza gehien mobilizatu nahi ditu merkatura atera ahal izateko, segurtasun, konfiantza eta berme guztiak, bai jabeentzat, bai etxebizitza bat eskuratu nahi dutenentzat.



Amaia Aguirre alkateak adierazi duenez, "etxebizitza lehentasunezko lan-ildo da guretzat. Datu zorrotzekin eta elkarrizketatik jardun nahi dugu, udalerrian dagoen eskaintza zabaldu ahal izateko urrats sendoak emanaz. Horregatik, hutsik dauden etxebizitzak errolda egin aurretik, funtsezkoa da informazioa kontrastatzea eta jabeen entzutea".

Ekimen hau udal etxebizitza-estrategiaren baitan kokatzen da, eta Udala Eusko Jaurlaritzarekin batera egiten ari den lanaren parte ere bada, etxebizitzak funtzio soziala eta erabilera arduratsu zein eragin-korra sustatuz. Ekimen honekin, Getxok aurrera egiten jarraitzen du etxebizitza eskuratzeko aukera gehiago sortzen lagunduko duten neurri zehatzetan, erantzukizunetik, gardentasunetik eta lankidetzatik abiatuta.


Udalak azpimarratzen du etxebizitza horiek ezin direla automatikoki hutsik daudela ulertu, kasu askotan alokairuan egon daitezkeelako edo bigarren etxebizitza gisa erabili daitezkeelako. Horregatik, ekimen honen helburua da higiezin bakoitzaren benetako egoera ezagutzea eta jabeekin zuzeneko komunikazio-kanal bat irekitzea.

Gutunaren bidez, titularrei gonbita egiten zaie Ondare eta Etxebizitza Sailarekin harremanetan jar daitezkeen eta aurretiazko hitzordua eska dezaten (94 466 00 44/45 eta <https://labur.eus/oomxnenm>) kasu bakoitza banaka aztertzeke. Prozesu horrek egoerak argitzea eta datuak eguneratzea ahalbidetuko du, eta, hala badagokio, informazio pertsonalizatua eskainiko da hutsik dauden etxebizitzak alokairu babestuko programetara, hala nola Bizigune programara, bideratzeko aukerei buruz; programa horiek segurtasuna eta egonkortasuna bermatzen dizkiete jabeen.

tuko du, eta, hala badagokio, informazio pertsonalizatua eskainiko da hutsik dauden etxebizitzak alokairu babestuko programetara, hala nola Bizigune programara, bideratzeko aukerei buruz; programa horiek segurtasuna eta egonkortasuna bermatzen dizkiete jabeen.

Bizipark-Getxo zabalik da, bizikletentzako lehen aparkaleku publiko segurua, Manuel Gainza parkingean

Bizipark-Getxo, udalerriko bizikleta pribatuentzako lehen aparkaleku publiko segurua martxan da Algotako Manuel Gainza aparkalekuan. 32 bizikleta gordetzeko ahalmena du, 16 urtetik gorako erabiltzaileentzat da eta eguneko 24 orduetan dago erabilgarri, urteko 365 egunetan. Azpiegiturak kudeaketarako software bat du internet bidezko konexioarekin, sarbideak kontrolatzeko sistema, barruko argiztapen iraunkorra, suaren aurkako 8 segurtasun armairu, banakako elektrizitate hargunearekin, eta Udaltzaingoaren segurtasun zerbitzuarekin konektatutako kameraren bidezko zaintza sistema bat. Gainera, barruan erabilera libreko BiziPuntu bat dago, konponketa txikietarako tresnarekin eta gurpilak puzteko kitarekin hornitua. Sarbidea parkingeko ibilgailuen irteer



ran dago, Bolue kalean. Zerbitzua zabalteko ekitaldian, Carlos Sergio Ingurumeneko zinegotziak eta Sonia Pérez Garraio eta Mugikortasun foru diputatuak azpimarratu zuten era honetako azpiegiturak "mugikortasun-eredu jasangarriago baterantz aurrera egiten errazten digute eta herritarrek modu osasungarrian, efizientean eta ingurunea errespetatuz mugitzeko aukera gehiago izaten laguntzen dute". Esperientzia pilotu bat da, bi erakundeek sinatutako

akordioaren emaitza: Aldundiak 50.000 euro eman ditu eta Udalak bere gain hartzen du zerbitzuaren kudeaketa eta mantentzea. Alta eman daiteke <https://getxo.bizipark.eus/> web plataformaren bidez, baita ordainketa ere, aukeratutako erabilera modalitatearen arabera. Pertsona bakoitzak plaza bat izango du, eta ez da baimenduko 14 egunetik gorako aldian ez erabiltzea. Informazio gehiago: <https://getxo.bizipark.eus/>; eta tel.: 94 466 01 91.

- **Sarrera:** Parkingeko irteeratik, Bolue kalean.
- **Erabiltzeko adina:** 16 urtetik aurrera.
- **Salneurria:** 4€/hileko; 10€/hiruhileko; 20€/sei hileko eta 40€/urteko.
- **Gestioa:** <https://labur.eus/ka2dbm48> web plataformaren bidez.
- **Ordutegia:** 24 ordu/egunetan, 365 egunetan.
- **Lekua:** 32 bizikletentzat.
- **Segurtasun armairuak:** 8 banakako elektrizitate hargunearekin.



MARTXOAK 20 OSTIRALA

Erakusketa. Romo Kultur Etxean, "Azala, mantua eta nukleoa", Mikel Gamero Menéndez eta Manuel Cruz Lópezen margoak. Apirilaren 18ra arte.

Ahozko-narrazioaren eguna. Ipuin kontalariak. Romo Kultur Etxean, AEDA Espainiako Ahozko Narrazioaren Profesionalen Elkartearen eskutik. **Haurrentzat.** 18:00etan (ele bitan). **Helduentzat.** 19:30ean (gaztelaniaz).

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Las Reinas karpina" (euskaraz), La Cuerda teatroa eta Ttipia Kulturarekin. 10 euro.

Zine Kluba. 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Asier Altunaren "Karmele" (euskaraz). 12 urtetik aurrera. 3,50 euro.

MARTXOAK 21 LARUNBATA

Opera. 19:30ean, Muxikebarrin, "L'elisir d'amore", L.G. Artist konpainia, Moldaviako Opera Nazionalarekin lankidetzan. 30 euro.

MARTXOAK 22 IGANDEA

Zinematikiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Sagu eta Pagu". Adin guztientzat. 2,50 euro.

Haur ikuskizuna. 18:00etan, Muxikebarrin, "El misterioso caso de Houdini y la habitación cerrada" (antzerkia eta magia), Nacho Diagorekin. 8 euro.

MARTXOAK 24 ASTEARTEA

Hitzaldia. Introducción a la Música Clásica. 18:00etan, Romo Kultur Etxean, "Ópera Italiana y Alemana". Hizlaria: Diego de Amigo (konpositore garaikidea eta Barakaldoko Kontserbatorioko irakaslea). www.allantica.org

MARTXOAK 25 ASTEAZKENA

Kontatu erretratu hau. 18:00etan, AJANERen egoitzan (Juan Bautista Zabala 6), Getxoko ondarea argazkien bidez identifikatzeko tailerra. 60 urtetik gorakoentzat.

Versadas. Poesia kluba. 19:00etan, Algortako Kultur

Etxean (Villamonte). Blanca Sarasua obrari buruz (gaztelaniaz).

MARTXOAK 26 OSTEGUNA

Ipuinaren ordua. 18:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "Bihotza more Kolore", Zugamarekin. 3 urtetik aurrera.

Zinemabarri. 19:00etan, Muxikebarrin, Jean-Pierre eta Luc Dardenneren "Rección nacidas" (AJB). 12 urtetik aurrera. 3,50 euro.

Literatura-solasaldia. 19:45ean, Algortako Kasinoan, Monica Ojedaren "Chamanes eléctricos en la fiesta del sol" eleberriari buruz (gaztelaniaz).

MARTXOAK 27 OSTIRALA

Eliz-kontzertuak. Algor-ta. 19:00etan, San Nikolas Barikoa parrokiak: Biotz Alai Abesbatza. **Areeta.** 20:00etan, Mesedeetako Ama parrokiak: Ondarreta Abesbatza.

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Bi baso bat ur", Metrokoadroarekin. 10 euro.

Zine Kluba. 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Mario Martoneren "La vida fuera". 16 urtetik aurrera. 3,50 euro.

MARTXOAK 28 LARUNBATA

Antzerkia. 19:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "¡Silencio, se rueda!", Eskuz Eskuren "Las guindillas" taldearekin. 5 euro.

Eliz-kontzertuak. 19:45ean, Mesedeetako Ama parrokiak, Fauré-ren "Requiem", Ars Canticum Abesbatza eta Musicum Ensemble Orkestra taldeekin.

Kontzertua. 20:00etan, Muxikebarrin, "Vamos, que nos vamos", Golden Apple Quartet taldearen agur kontzertua. 8 euro.

MARTXOAK 22 IGANDEA

Zinematikiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Las vidas de Marona". Adin guztientzat. 2,50 euro.

Haur zinea. 17:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Los exploradores". Adin guztiak. 2,50 euro.

Haur ikuskizuna. 18:00etan, Muxikebarrin, "Matres" (gaztelaniaz), Campi konpainiarekin. 8 euro.

Deialdi berria Getxo Itsas Hub-en lan-espazioak eskatzeko

Kirol-portuan dagoen Getxo Itsas Hub kirol-nabigazioko ekintzailetzako zentroan udal-espazioak okupatzeko eskaera egiteko epea zabalik egongo da martxoaren 24tik apirilaren 9ra. 22 lanpostu lagako dira, erabilera finko edo iraunkorreko 8 lanpostu eta 14 postu txandakatu edo malgu. Kasu honetan, 2 urterako izango da (maiatzaren 1etik aurrera), beste 2 urtez luzatzeko aukera izanik, eta gehienez 2 lanpostu enpresa-proiektu bakoitzeko. Epe horren ostean espazioaren bat bete gabe geratzen bada, eskaera egiteko epea luzatuko da.

Juanma Gonzalez Getxolan-Ekonomia Sustapena Arloko zinegotziak gogorarazi duenez, "ekimen honen helburua da Getxon eragin positiboa izango duten aukera-espazioak sortzen eta finkatzen jarraitzea, jarduera ekonomikoa bultzatuz eta sektoreko enpresei lagunduz. Getxo Itsas Hub-ek gure enpresa-sarearen beharrei erantzun nahi die, eta guztiz lerrotatuta dago Bizkaiko Foru Aldundiak Ekonomia Urdinaren esparruan Bizkairako duen posizionamenduari buruzko estrategiarekin".



Deialdi honetan aldaketa batzuk egin dira 2023an ezarri ziren irizpideekin alderatuta, denbora horretan kokatutako proiektuen beharretara egokitzeko eta, era berean, proiektuen txandakatzea sustatzeko eta aukera berriak eskaintzeko. Hori dela eta, lanpostuen hautaketa irizpide hauetan oinarrituko da: lehentasuna emango zaie Getxon errol-datatutako pertsonen proiektuei; inoiz udal-espaziorik lagata izan ez duten pertsonen osatutako proiektuei; eta, proiektua ekintzailetza-Hub zentroetako batean egon bada, lehentasuna emango zaie denbora gutxienean eman dutenei. Era berean, lehentasuna emango zaie txandakako lanpostuetan egon diren eta orain lanpostu finkoa eskatzen duten proiektuei.

Proiektu bakoitzaren balorazioaren emaitzak erabakiko du espazioa aukeratzeko txanda. Informazioa lortzeko edo eskaerak egiteko interesa duten pertsonen helbide honetan egin dezakete: <https://labur.eus/k89hwmjy>



la 6.000 euro solidario ASPANOVASentzat

Carmen Díaz Gizarte Kohesioko zinegotziak ASPANOVAS minbizia duten Bizkaiko haur eta nerabeen gurasoen elkarteari eman zion ostegunean, hilak 12, +60 Dinamizazio Zerbitzuko Josteta Solidarioaren tailerrean egindako haurrentzako arropen salmentatik ateratako dirua. Oraingoan, aipatutako elkarrekin 5.790 euro eskuratu zituen, aurrera eramaten dituen jardueratarako eta proiektutarako, Urgull Zentroan egindako ekitaldian, elkarrekin ordezkariek eta Joste tailerreko kideen partaidetzarekin.

Lagundu Getxo hobetzen

ZEUGAZ.GETXO.EUS | partaidetza@getxo.eus

Aurrekontu parte-hartzaileak

2027 - I. FASEA → 2026ko martxoaren 5etik 22ra

+ INFO:

AZKEN EGUNAK

ZEUGAZ PARTAIDETZA

Getxo

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

STAFF > Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitzari lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.

Erredakzioa: Nekane Ardanza. Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: getxokoudalaprentsa@getxo.eus Arte arduradunak: Diseinu eta Komunikazioa Aulesti SL. Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U. Banaketa: Joal Express, S.L. Gordailu legala: BI-388-87

Erredaktoreburua: Itziar Aguayo.

Korrika: 34 lekuko aldaketa 45 entitate eta eragile ingururen izenean, tartean Udala

Korrikak 34 lekuko aldaketa egingo ditu Getxon, udalerriko 45 entitate eta eragile ingururen izenean (euskara, kultur, kirol, dantza, gizarte, gazte, enpresa, abesbatza, ikastetxe, alderdi politiko,...), tartean Udala, martxoaren 26an, ostegunean, udalerrira zeharkatzean. AEK-k antolatuta, Euskal Herri osoko erakunde askoren laguntzarekin, tartean Udalarena, aurtengo edizioak *Euskara gara* leloarekin, 2.175 kilometro egingo ditu, martxoaren 19tik 29ra, Atharrazetik Bilbora. Amaia Aguirre alkatearen hitzetan, "Udalak berretsi egiten du euskararen sustapenarekin eta ikusgarritasun sozialarekin duen konpromisoa, bai eta hizkuntzaren eguneroko erabilera sustatzen duten eta bizitza publikoan euskararen presentzia indartzen duten ekimenak babestearen garrantzia ere".

Lasterketa 11:00ak baino apur bat lehenago sartuko da Salsidu Etorbidetik, eta, besteak beste, hurrengo tokietatik pasako da: Ollarretxe, Ormaza, Maidagan, Aingeru etorbidea, Bidezabal, Sarrikobaso, Telletxe, Iturgitxi, Makaleta etorbidea, Amaia, Kresaltzu, Ezekiel Agirre, Nagusia eta Santa Eugenia. 2025eko martxoan hil zen Irune Etxebarria Atxa getxotarra, euskaltzalea eta lehen ediziotik lasterketaren sutaizalea omenduko dute Romon.



"L'elisir d'amore", umorezko eta samurtasunezko opera

L'elisir d'amore, bel cantoko opera maitatuenetako bat, Muxikebarrira iritsiko da L.G. Artist konpainiarekin, Moldaviako Opera Nazionalarekin lankidetzan. Larunbat honetan, hilaren 21ean, 19:30ean, Gaetano Donizettiren lan ospetsu hau taularatuko dute, umorez, samurtasunez eta melodia jarkiezinez betea. Komedia erromantikoa da, eta belaunaldiak konkistatzen jarraitzen du, bere xarmagatik, itxurazko sinpletasunagatik eta hunkitzeko duen gaitasunagatik. Partitura argitsu bat, errepertorioko une handienetako bat den *Una furtiva lagrima* ahazteazinean amaitzen dena. Sarrera: 30 euro.



Magia ikuskizuna, haurrentzat

Haurrek hitzordua dute igandean, hilak 22, Nacho Diago mago eta aktore valentziarrarekin. Muxikebarrin, *El misterioso caso de Houdini y la habitación cerrada* antzeztuko du. Ilusionismoa, txotxongiloak eta bideo mapping-a (objektuen gainean proiektatutako irudiak) uztartzen dituen antzerki eta magia ikuskizuna da. Tramak 1916ko egunkari sekretu baten ikerketa jarraitzen du, Houdinik, fenomeno paranormalak gezurtatzen zituen eskapistak ospetsuak, inoiz konpondu ez zuen enigma bakarra azalerraten duena. 18:00etan hasiko da eta sarreraren prezioa 8 eurokoa da.



"Arraingorri", oroimena omendu eta etorkizunaz ohartarazten duen nobela

Jon Kepa Iradi Madariaga idazle eta aktibistak *Arraingorri* eleberririk historikoa aurkeztu du Algortako Kultur Etxean, Villamonten. Eleberririk horrek zorrotasunez eta emozioz berreraikitzen ditu Gernikako bonbardaketa, "Gerrako haurren" ebakuazioa Bermeoko portutik edo "Lekeitioko rapaden" eskarnioa, egunerokotasuna heroikoarekin nahasten den istorio korala ehunduz. Testua memoriari egindako omenaldi eta etorkizunari begirako ohartarazpen gisa deskribatzen da, gatazka horiek bizi izan zituztenei "su eta gizatasun lerro" baten bidez ahotsa eman nahian.

"Las Reinas Kanpina"

La Cuerda Teatroa eta TTipia Kultura Muxikebarriko ohol-tzara igoko dira ostiralean, hilak 20, *Las Reinas Kanpina* antzezteko. Euskarazko komedia arin eta ironikoa da, hierarkien errepikapenez, atsedena/lana binomioaz eta botere-gehiegikeriaz hausnartzen duena. Maider Lekunberri, Maitane Perez eta Olatz Beobide aktoreek urtez urte oporretako toki berera joaten den emakume talde bat osatzen dute. Bere lurraldea. Kanpina. Baina, opor "perfektuak" al dira?



Emanaldia 20:00etan hasiko da eta sarrerak 10 euro balio du.

Zinema campusa Aste Santuan

Apirilaren 7tik 10era Aste Santuko Zine Campusaren edizio berri bat egingo da Romo Kultur Etxean.



3 eta 11 urte bitarteko haurrei zuzenduta, aurrekoetan bezala, tailerrak eta proiektzio dinamizatuak programatu dira. Tailerren izenburua *Zure zinema-kartela* eta *A-som-bra-te* da, eta euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, 11:30etik 13:30era. Aldez aurretik izena eman behar da (martxoaren 25era arte).

Proiektzio dinamizatuak 17:30ean izango dira, eta sarrerak 2,50 euro balio du. *Cops (Mudanza)* & *El navegante*, *Kiriku eta sorgina*, *La pequeña linterna: sesión descubrimiento* eta *Linterna txikia: emozioen saioa* proiektatuko dira. Informazio gehiago eta izena emateko: <https://labur.eus/ngxt49on>

Erakusketa RKEen

Apirilaren 18ra arte bisitatu ahal izango da Romo Kultur Etxean Mikel Gamero Menéndez eta Manuel Cruz López margolarien *Azala, mantua eta nukleoa* izeneko erakusketa. Formatu handi eta txikiak dira, egile horien prozesu piktorikoak aztertzen dituztenak eta beren azterketa-praktika erakusten dutenak. Bisita gidatu bat eta doako bi tailer programatu dira.

Informazioa: <https://labur.eus/bgpooptoi>

Udala aurrera doa inausketa kanpainan, eta bereziki Máximo Aguirre eta Zugatzarteko ezkiak dihardu

Udalak hiriko zuhaitzen mantentze lanekin jarraitzen du, 2025-2026 inausketa kanpainaren barruan. Kanpainak apirilera arte iraungo du eta lan horiek udalerrri osoko parke, plaza, lorategi eta kaleetan egiten dira, zuhaitzak egoera onean mantentzeko, segurtasuna hobetzeko eta azpiegitura berde osasungarria bermatzeko. Hainbat espezie inauten dira, besteak beste, ezkiak, platanondoak, arbustuak, astigarrak, gereziendoak, magnoliak, makalak, palmondoak, pinuak, lizarrak, arteak edo akaziak. Lerrokatutako zuhaitzen inausketa 4.000 ale ingurutan egingo da udalerrri osoan, batez ere platanondoetan, eta alturako inauste lanek mila zuhaitz baino gehiagori eragingo diete.

Egunotan, udalerrian dauden ezki handienetan zentratzen dira bereziki lanak, Areetako Máximo Aguirre kalean. Zehazki, zuhaitzen egoeraren analisiaren bidez egindako azterketen ondoren, ikusi da ale batzuek arazoak dituztela beren egiturazko egonkortasunari eragiteko, hainbat patologiararen ondorioz. Hori dela eta, kale horretako 15 ezkitan zurkaitze-lanak hasi dira, Ibaigane kalearen eta Santa Ana ermitaren arteko zatian (zurkaiztea zuhaitz bat osorik kentzea da, haren egoera arriskutsua izan daitekeela ondorioztatzen denean edo beste tratamendu batzuen bidez haren egonkortasuna bermatu ezin denean egiten da). Erretira-



tutako aleen ordez, ezki (*Tilia cordata*) espezieko zuhaitz berriak jarriko dira, hazkunde ertaineko ezki bariatatea. Tarte berean, beso ustel hauskor guztiak ezabatuko dira. Jarduketa Zugatzarte etorbidera ere zabalduko da.

Halaber, ehun bat inausketa eta zurkaizte egin dira berriki, Marqués del Real Socorro kaleko basotoaren inguruan. Jarduketa horiek Bizkaiko Garraio Partzuergoaren errekerimendu bati erantzuten diote, metroaren trenbidearekin zerikusia duten arrazoiengatik.

Klima-aldaketara egokitzea

Bestalde, kanpainaren barruan, 750 platanondo baino gehiago inausiko dira udalerriko hainbat parkeetan, hala nola San Inazio, Maria Cristina, Satistegi, Usategi, Zugatzarte eta Txurruka parkeetan, haien egoera onari eusteko eta herritarrentzako itzal eta ongizate gune gisa duten zeregina indartzeko.

“Getxon lantzen ari garen hiri-babesleku klimatikoak ere hiri-espazioek osatzen dituzte, bide publikoa giroten duten azpiegitura berdez hornitutako pasealeku gisa, klima-aldaketara egokitzen eta hiri-espazioen azpiegitura berdearen %10eko estaldura horretan aurrera egiten laguntzen digutenak, lege-antolamendu berriek adierazten duten bezala”, Carlos Sergio Ingurumen Zerbitzuko zinegotziak azpimarratu duenez.

Endoterapia pinu-beldarraren aurka

Udalak prebentziozko tratamenduekin jarraituko du aurten udal zuhaitzian landare-endoterapia bidez; izan ere, teknika hori erabiltzen da udalerriko pinuetan prozesionaria agertzea saihesteko. Zehazki, 85 pinu tratatuko dira El Pinar eta Cervantes kaleetan, San Joseren parkean eta Marqués del Real Socorroko finkan, eta Villa de Plentzia kaleko 7 zedrotan.



Endoterapia tratamendu sistema bat da, zuhaitzaren enboreetan produktu fitosanitario bat zuzenean injektatzen datzana. Produktu hori izerdiaren bidez banatzen da bere barnean, eta zuhaitza izurri jakin batzuetatik babesten du. Metodo horri esker,

aleak modu lokalizatuan trata daitezke, zuhaitza zulatu beharrik gabe eta produktuak airean eta ingurunean sakabanatu gabe; beraz, seguruagoa da pertsonentzat, animalientzat eta ingurumenarentzat.

Iaz tratamendu hori aplikatzen hasi zenetik, pinu-beldarraren presentzia nabarmen murriztu da udalerrian. Emaitzak oso positiboak izaten ari dira: kasu gehienetan tratamenduak funtzionatu egin du eta beldarrak tratatutako zuhaitzaren hostoez elikatzean hiltzen dira. Hala ere, Udalak jarduera horiekin jarraituko du, prebentzioa indartzeko eta izurria kontrolpean edukitzeko pinuetan zein beste konifero batzuetan. Eta zuhaitzen behaketa- eta jarraipen-lanak ere egiten jarraituko du, tratamenduak indartuz beharrezkoa denean, eta aleen egoera ebaluatuz, haien osasun-egoera onartu bermatzeko.

Marrazki lehiaketa, Ingurumen Aretan

Ingurumen Aretoak beste marrazki-lehiaketa bat antolatu du, eta gaia *Udaberría Getxon* da. Lehiaketan parte hartzeko epea martxoaren 31ra arte dago zabalik eta bi kategoria ezarri dira: 4-9 urte eta 10-15 urte. Udaberriko loreei, animalieei, paisaieei, tradizioei, jaiiei... buruzko lanak aurkez daitezke. Kategoria bakoitzak koloretako 48 arkatzez osatutako kutxa bat jasoko du.

Marrazkiak info@ingurumena-retoagetxo.eus helbidera bidali behar dira, izena, adina eta telefonoa adieraziz.

KIROLAK



Punta Galea Txirrindulari Elkartearen 51. denboraldiaren aurkezpen ofiziala

Punta Galea Txirrindulari Elkarteak bere 51. denboraldiaren aurkezpena egin zuen joan den ostiralean, hilak 13, Tiki Toki Zentroan, bere talde guztiekin: Txirrindularitza Eskola, kadete eta junior mailak eta 23 urtez azpiko Eiser-Hirumet Elitea. Denboraldia erronka eta aukerez beteta dator eurentzat. Aurkezpen-ekitaldian kirolariak, senideak, babesleak eta laguntzaileak bildu ziren, eta bertan izan ziren Amaia

Aguirre alkatea eta Carlos Sergio zinegotzia, oraingo honetan Foru Aldundiko Kirol zuzendari gisa. Eguneko unerik hunkigarrienetako bat izan zen 1.800 euroko txeketa eman ziotenean minbizia eta gaixotasun arraroak dituzten adingabeak laguntzen dituen La Sonrisa de Naia Fundazioari. Iaz txirrindularitza klubak egindako Jaialdi Solidarioan bildutako dirua da emandako hori.

XXXVIII. Itxartu Krosa

Itxartu Taldeak Getxo Kirolakekin elkarlanean antolaturik, Itxartu Krosaren 38. edizioa egingo da igande honetan, hilak 22. Ohiko zirkuituan izango da, kategoria ezberdinetan, eta irteera eta helmuga Batzokian egongo da. 10:30ean hasiko da proba, 12:45ak aldera amaituko da, eta denbora horretan Algortako erdigunean trafikoa etengo da.

Garaikurrak egongo dira lehen sailkatuentzat, kadeteetatik beterranoetara.

Izen-ematea itxita dago (eta Kros egunean ez da inskripziorik egongo).